


Eraikuntzaren kostuak % 0,5 igo ziren Euskal AEn 2020ko otsailean, aurreko hilabetearekin alderatuta

Aurreko urtearen aldean, 2020ko otsaila 2019koaren aldean, kostuak % 2,0 hazi ziren

Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea % 0,5 igo zen 2020ko otsailean, aurreko hilabetearekin alderatuta; hilabete horretarako urte arteko tasa, berriz, % 2,0 igo zen, Eustatek emandako datuen arabera.

Euskal AEko eraikuntzako kostuen indizearen urte-arte aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Aurreko hilabetearekin alderatuta, lehengaien kostuak % 0,7 igo ziren, eta eskulanaren kostuak ez zuen aldaketarik izan (% 0,0).

Otsailean, hala Etxegintzako azpisektoreak lehengaien kostuan nola Obra Zibileko azpisektoreak % 0,7ko hilabete arteko igopera eduki dute. Urte arteko bilakaeran ere, bi azpisektore horiek adierazle positiboa dute; izan ere, Etxegintzako lehengaien kostuak % 1,9 goratu dira, eta Obra Zibilekoenak, berriz, % 2,9.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien prezioetan, 2020ko otsailean 2019ko otsailarekin alderatuta igopera handienak izan dituztenen artean honako sektore hauek nabarmentzen dira: *Mineral ez-metalikoak* (% 6,4), *Material elektronikoa* (% 3,6) eta *Material elektrikoa* (%)

1,7). Aitzitik, lehengaien prezioetan behera egin dute hauek: *Petrolio*a fintzea (% 5,8), *Makineria* (% 2,6) eta *Industria ez-metalikoa* (% 1,9).

EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAKO KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2020ko Otsaila

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m/m-1	m/m-12	m/abendua
GUZTIRA	107,0	0,5	2,0	1,6
Eraikinak	106,7	0,5	1,9	1,6
Obra zibila	107,9	0,6	2,6	1,8
LEHENGAI	106,6	0,7	2,1	1,6
Eraikinak	106,3	0,7	1,9	1,5
Obra zibila	107,8	0,7	2,9	1,8
LAN-ESKUA	108,2	0,0	1,8	1,8

Oinarria 2015=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62